

«Negoziazioak negoziatzeko» batzartu egingo dira israeldar eta palestinarrak

Netanyahuk zein Arafatek onartu egin dute Ross EEBBetako bitartekariaren proposamena

Agentziak / Jerusalem

ISRAELGO eta Palestinako agintarien ordezkariak negoziazio mahaiari eseriko dira berriro ere aste hau amaizterako. Hala jakinarazi zuten atzo Israelgo Gobernuak eta Palestinako Aginte Nazionalak (PAN) iturriek. Izan ere, Benjamin Netanyahu Israelgo lehendakariak eta Jasser Arafat PANekoak onartu egin dute Dennis Ross EEBBen Ekialde Ertiarako ordezkariak proposatu dien «interbentzio zuzeneko plana».

Plan horren arabera, bake negoziazioak nola berrekin negoziatzen hasiko dira asteon egingo den batzar horretan. Horretarako, gatazkako alde bietako ordezkariak osatutako batzorde bat eratuko da, eta horrek erabakiko du bake negoziazioen gai ordena.

Bost dira bake elkarrizketetan finkatu beharreko gaiak: Jerusalem ekialdeko Har Jomako juduen asentamendu berriaren eraikitzea —horretarako eten zuten alde bien elkarrizketak iragan martxoan—, Zisjordaniako kokagune juduen hedatzea, israeldar zein palestinarren segurtasun indarren arteko elkarlana, Zisjordaniako nekazarri inguruetatik Israelgo Armadak alde egitea, eta bete gabe geratu diren akordioak berrikustea.

Israelgo Gobernuak jakinarazi duenez, Isaac Mordejai Defentsa ministroa eta Isaac Moljo abokatuak izendatuko ditu ordezkari elkarrizketa batzorderako. Palestinako Aginte Nazionalaren ordezkari, Sae Erekat Gai Lokaltarako ministroa eta Jasser Abed Rabo Kulturakoa izango dira.

Aurrerago esan bezala, batzorde horren bidez abian jarriko den prozesua ez da martxoan etendako bake elkarrizketa, baizik eta negoziazio horiei berriro heltzeko aurre-negoziazioa. Edonola ere, bake prozesua bultzatzeko baliagarri izan daitekeela uste du

Elkarriketako gai ordena ezartzeko israeldarren eta palestinarren ordezkariak osatutako batzordea eratzea proposatu die Dennis Ross EEBBen Ekialde Ertiarako ordezkariak bi aldeei. Horrela, martxoan eten zen bake prozesua berriro abian jartzea lortu nahi du Rossek.



Bi haur israeldar asaltoko errifle batekin jolasean herenegun Jerusalem, Israelen independentziaren 49. urteurrena zela eta.

WENDY SUE LAMM-AP

Dennis Ross EEBBen Ekialde Ertiarako ordezkariak. Ildo horretatik, nahiko baikor agertu zen Ross Herengun Amanen Hussein erregearekin izan zuten bileraren ostean: «Bake prozesua oraindik bizirik dago», esan zuen, nahiz eta onartu, zailtasun handiak zeudela elkarrizketak bide onetik eramateko. Hain zuzen ere bake prozesua indartzeko asmoz, David Levy Israelgo Atzerri ministroa Madeleine Albrightekin bilduko da datorren ostiralean Washingtonen.

Herrialde arabiarrek, berriz, ahalegin handia egiten ari dira Nazio Batuetan erakunde horrek ordezkari bat bidal dezan Ekialde

Ertiarako «errealitatea bertatik bertara» ezagutzeko.

Bashatiren hilketa «kezkarria» EEBBentzat • Joan den ostegunean Jerusalemgo Ambassador hoteletik desagertu egin zen Farid Bashati enpresari inmobiliarioa eta ostiralean hilotz agertu zen Ramala hiri autonomian garezurra txikituta zuela. Hilketa horren ikerketa oso hurbiletik segitzen ari da Estatu Batuetako Gobernuak Palestinako Aginte Nazionalak zerikusirik ba ote duen jakiteko.

PANeko iturriek ukatu egin dute hilketarekin harremanik dutela, baina Bashatiren seni-

tartekoek PANeko segurtasun zerbitzuak bahitu eta hil zuela salatu dute behin eta berriz. Izan ere, Bashatik israeldarrei lurra saldu ziela zabaldu da, eta joan den astean salmenta horiek egiten zizutenak heriotzera zigortzea erabaki zuen Palestinako Aginte Nazionalak.

Nicholas Burns EEBBetako Gobernuaren bozeramaileak Israelgo Polizia egiten ari den ikerketa «oso hurbiletik» segitzen ari direla jakinarazi zuen atzo, eta erantsi zuen, «krimen politikoa» dela frogatzen bada «oso gertakari kezkarria» izango dela Estatu Batuetako Gobernuarentzat. X

UKRAINA

■ Diputatuak mutur joka

KOMUNISTAK eta antikomunistak mutur joka aritu ziren atzo Legebiltzarrean, hilaren 9an Lvov herrian gertatutako iskanbilan haritik. Armada Gorriko veteranoek Alemania nazien gainean lortutako Garaipenaren Eguna ospatzeko manifestazioa egin zuten maiatzaren 9an, eta Polizia gogor oldartu zitzaizkien veteranoek. Diputatu komunista bat hitz egiten hasi zen Legebiltzarrean, antikomunista batek indarrez baztertu zuen eta orduan hasi ziren istiluak. X

SRI LANKA

■ Armadak tamilen aurkako eraso hasi du

MILAKA soldadu Tamilen Aberriaren Askapenerako Tigreek iparraldean mendean duten lurraldera abiatu ziren atzo artilleria astunarekin. Tamilen aurkako operazio militarra hiru lekutatik hasi zuten soldaduek: batzuk Vavuniyatik barrena sartu ziren tamilen lurraldera, besteak Mamadutik, eta beste batzuk Pararasankulamdik. Gainera, Armadak suzirikin eta morteroekin bonbardatu zituen tamilen posizioak horiek mende duten lurraldean. X

TXINA - EEBB

■ EEBBetako Estatu Nagusiko burua Pekinen da

JOHN SALIKASHVILI EEBBetako Estatu Nagusiko buruzagiaren bisitagatik pozik azaldu ziren atzo Txinako bozeramaile ofizialak, 1983. urteaz geroztik Txina bisitatzen duen EEBBetako Estatu Nagusiko bigarren buruzagia baita. Bi herrien arteko harremanak normalizatzeko arlo militarrean elkarlanean aritzeko garrantzia azpimarratu zuten Txinako bozeramaileek. X

JAPONIA

■ Aoki enbaxadorea ez da Perura itzuliko

MORIHISA AOKI-K, Japoniaren Limako enbaxadorea, utzi egin du kargua eta Gobernuak onartu egin dio erabakia. Tupac Amaru Mugimendu Iraultzaileko komando bat indarrez sartu zen enbaxadara joan den abenduan; bahiketa apirilean amaitu zen, Peruko Armadaren asaltoarekin. Aokik bar-kamena eskatu zien atzo Senatuan Japoniako Gobernuari eta herriari, bahiketarako sortu ziren kezkatik. Aokik tamalgarriztat jo zuen, gainera, Armadak egin zuen asaltoan bi soldadu eta bahituetako bata hil izana. X

Hondurasko indigenek «borroka baketsua» hasi dute Gobernuari lurra eta justizia eskatzeko

■ Tegucigalpako Lehendakaritza Etxearen ataritik astelehenean «bortizki kanporatu» zituzten

Agentziak / Tegucigalpa

INDIGENEN eta agintarien arteko elkarrizketak etenda daude Hondurasen, 2.000 bat indigena Lehendakaritza Etxearen inguruetatik astelehen goizaldean «bortizki kanporatuak» izan ondoren. Indigenek «herri autoktonoen borroka politikoa» hasi dutela iragarri zuten astelehenean, lurra eta justizia aldarrikatzeko.

Indigenen kanporatzea «benetan bortitza» izan zela salatu zuten indigenekin batera zegoen Carlos Solano apaizak. Kanporatuak izan eta gero indigena batzuk Lehendakaritza Etxetik 400 bat metrora jarri ziren. Horiek beste

indigenei deitu zieten Tegucigalpako «borroka baketsuarekin» bat egin dezaten.

Hondurasko indigenen protesta hilaren 5ean hasi zen. 2.000 bat lagun Tegucigalpa hiriburura heldu ziren lurra eta justizia eskatzeko, eta bai Lehendakaritza Etxearen bai Justizia Auzitegi Gorenaren aurrean jarri ziren. Orain astebate gose greba hasi zuten 82 indigenek, eta joan den igandean 200 ziren gose greban zeudenak.

Indigenen eta Gobernuaren negoziaketa ordezkartzek joan den astelehenean elkarrizketari helduko ziotela iragarri zen, baina, gero, chorti indigenek exijentzia batzuk plazaratu zituzten: Ro-

dolfo Pastor Fasquelle; Kultura, Artearen eta Kirolen ministroa «berehala kargutik kentzea», hura delako Gobernu batzordearen burua; eta bitartekaritza lana egitea Giza Eskubideen Komisionatu Nazionalak, Eliza Katolikoak eta Giza Eskubideen Defentsarako Batzordeak.

Pastor Fasquelle ministroak, berriz, esan zuen Gobernuak proposamen berria egin ziela indigenei: lurra eta besterako onurak hilabeteko epean pixkanaka indigenei ematea, eta Tegucigalpan egon daitezela, baina beste leku batean. Baina indigenen buruzagiek negoziatzeko «borondate eskasa eta jarrera gogorra» azaldu zituzten salatu

zuen ministroak. Indigenen manifestazioa hiriburuan ordena publikorako benetako arazoak bilakatu dela gehitu zuen, manifestazioa egiten ari ziren indigenak osasun baldintza kaskarretan daudelako.

Erakunde anitzek Ertamerikako beste herrietako Hondurasen enbaxaden aurrean protesta baketsuak egin dituzte chorti indigenen eskaeren alde, Salvador Zúñiga, chortiekin bat egin duten lenca indigenen buruzagiak, azaldu zuenez. «Elkartasuna jaso dugu Panamako Herri Indigenen Konfederazio Nazionaletik eta Indigenen Kontseilu Ertamerikarretik», azpimarratu zuten Zúñigak. X